

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AGURAINGO UDALA

#### **Behin betiko onespena ematea. Langileak hautatzeko probetan parte hartzeko eskubideengatiko tasak arautzen dituen zerga ordenantzari**

2022ko azaroaren 24an Aguraingo Udalean egindako osoko bilkuran erabaki zen langileak hautatzeko probetan parte hartzeko eskubideengatiko tasak arautzen dituen ordenantzaren hasierako onarpena. Jendeaurrean egon den bitartean erreklamaziorik ez denez aurkeztu, ordenantza hori automatikoki behin betiko bihurtzen da. Honen berri emateko argitaratzen da ordenantza honen testu osoa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua xedatutakoa betez.

#### **Langileak hautatzeko probetan parte hartzeko eskubideengatiko tasak arautzen dituen ordenantza**

##### I. OINARRIA ETA IZAERA

###### **1. artikulua**

Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren Testu Bateginaren 18.etik 21.era bitarteko artikuluetan xedatutakoaren babesean, Aguraingo Udalak Langileak hautatzeko probetan parte hartzeko eskubideengatiko tasa ezartzen du, zerga ordenantza honen arabera arautuko dena.

##### II. ZERGA EGITATEA

###### **2. artikulua**

Honako hau da tasaren zerga egitatea:

a) Aguraingo Udalak funtzionario eta lan-kontratudun langileen plaza huts bat betetzeko egiten duen eskaera da, lehiaketa, oposizio eta oposizio-lehiaketetara aurkezteko, irekiak edo mugatuak izan.

b) Kontratazio-zerrendak sortzen dituzten Aguraingo Udalak deitutako hautaketa-prozesuetara hautagai gisa aurkezteko eskaera, baldin eta deialdi zuzenen bidez egiten badira eta gutxienez ariketa edo balorazio bat egiten bada.

##### III. SUBJEKTU PASIBOA

###### **3. artikulua**

Honako hauek dira subjektu pasiboak, zergadunak: lehiaketa, oposizio eta oposizio-lehiaketetan (libre edo mugatuak) hautagai gisa parte hartzen duten pertsona fisikoak, Aguraingo Udalak funtzionario eta lan-kontratudun langileen plaza hutsak jabetzan betetzeko deitzen dituen kontratazio zerrendak sortzen dituzten hautaketa-prozesuetara aurkezten direnak ere.

##### IV. ZERGA KUOTA

###### **4. artikulua**

Oposiziogile, lehiatzaile edo izangai bakoitzak 15 euro ordaindu beharko ditu.

Eskabidea aurkeztean egoera hauetakoren batean daudenek ez dute azterketa eskubideen tasa ordaindu beharko:

a) Gizarte Segurantzako araubide batean ere alta emanda ez egotea, edo, hala badagokio, jarduneko lanbide mutualitate batean ere alta emanda ez egotea.

b) Ehuneko 33ko minusbaliotasuna edo handiagoa onartuta duten pertsonak, baldin eta elbarritasun txandarako plazarik gordeta ez duten deialdietara aurkezten badira.

Tasaren kuota ehuneko 50 murrizteko eskubidea izango dute eskabidea aurkeztean familia ugariko kide direla aitortuta dutenek.

c) Azterketaren kopiak: 7 euro azterketa bakoitzeko, galdera-koadernoaren kopia, erantzun-orriaren kopia eta, hala badagokio, zuzenketa-irizpide orokorren kopia edo erantzun zuzenen txantiloia barne.

## V. SORTZAPENA

### 5. artikulua

Espedientea osatzen laguntzeko betebeharra ezartzen du, eta ez da bidezkoa izango eskubide horiek itzultzea, nahiz eta eskatzailea, oposizio eta oposizio-lehiaketa edo kontratazio-zerrendetako hautaketa-prozesuetatik kanpo utzi, edozein arrazoiengatik.

## VI. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

### 6. artikulua

Lortu nahi den plaza bakoitzeko tasa nominala eta banakakoa Aguraingo Udalak adierazten duen kontuan sartu beharko da. Sartu izanaren frogagiria hautaketa-prozesura aurkezteko eskabidearekin batera aurkeztu beharko da.

Behin eskabideak aurkezteko epea amaituta, ez da onartuko tasa itzultzeko inongo eskabiderik.

## XEDAPEN GEHIGARRIA

Zerga ordenantza honen arauak, arrazoi sistematikoak direla medio, indarrean dagoen legeriaren eta hori garatzeko beste arau batzuen alderdiak kopiatzen badituzte, automatikoki aldatuko edo ordeztuko dira eratortzen diren legezko arauen aldaketa kopiatzen denean.

## AZKEN XEDAPENA

Zerga ordenantza hau behin betiko erabakia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera egongo da indarrean eta haren indarraldiak aldatu edo berariaz indargabetu arte iraungo du.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan. Horretarako bi hilabete izango dira iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluekin bat etorritz.

Agurain, 2023ko urtarrilaren 20a

*Alkatea*

**ERNESTO SAINZ LANCHARES**